

ZENBAT BURU

Alberto Iriondo

ERREPORTAIA

197/98 ikasturteko

eskolarteko

Kirolen

ari bari

UDAL

Osasu

en au

gin d

ordezk

KIRO

ulen

atu d

C. D. B

ehend

argun


KULT

Trinita

BARRREN

1998ko ekainaren 5a
V. urtea - 239. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Trinitateak!

“Alaitasuna gudan dago, ez inguruko gauzetan” anonimoa



JAKIN



a k a d e m i a

INFORMATIKA

- Ofimatika
- Programazio
- Aurkezpen
- hizkuntzak
- grafikoak
- Internet

KONTU ETA MERKATAL GESTIOA

- Nominak eta gizarte segurantzaz
- Kontabilitatea
- Fakturazioa

MEKANOGRAFIA


KLASE PARTIKULARRAK

- Matematika
- Fisika
- Kimika
- Kontabilitatea
- Matematika finantzieroa
- Literatura
- Latina
- ...


TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Arregitorre, 6 • Tel: 943 74 08 95 ELGOIBAR / Santalaitz, 6 • Tel: 943 76 00 68 BERGARA

ZELETA BARAZKIAK




NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA



Kalitatezko produktuak ortutik mahaira zuzenean

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa ELGOIBAR



ALBERTO IRIONDO

A! Asteburua!

Lerdi tanta batzuk nire bekokitik behera agertzen hasiak ziren, eta hamar minutu besterik ez neramatzan taberna barruan, nire lagunentzako zurito batzuk ateratzeko asmoarekin. Albokoaren ukondoa nire sahietsen gogortasuna probatzen ari zen; ezkerrean, hiru 'Rambo', tirantedun kamisetarekin, lehortzeko zorian zituzten haragi puskak kulunkatuz, inguruko jendearen harriduraren bila zebiltzan, eta nire aurrean zegoen kuadrila baten pseudo-dantza basati, bortitz eta arritmikoez, batera eta bestera eramaten ninduten.

Aurrean, barratik eskegita, bikote bat, jendeari muzin eginez, parajerik intimoenean egongo balitz bezala, bere deshinezioa erakusten ari zen; tamalez, hura zen barrara heltzeko nuen bide bakarra, eta 10 minutu hauetan nekez aurkitutako leku pribilegiatu hartatik irtenez gero, nire misioaren arrakasta arriskuan jarriko nuen. Beraz, sarrera ondoan zeuden lagunei so egin eta, buruarekin keinu bat eginez, azkeneko eraso egiteko prest nengoela adierazi nien. Tabernetan ibiliak diren guztien moduan, besoa luzatuz, nire eskua barra gainean jartzea lortu nuen, eta nire gorputzak sufritzen zuen zapadura igarri arren, banekien denbora piska bat besterik ez nuela behar "pool position" a

erdiesteko. Pentsatu eta egin, baina hori bai, aurrean neukan bikotearen elkartrukea geldiarazi behar izan nuen, jarraian etorri zitzaizkidan begirada haserre haiei jar nezakeen aurpegirik inozoenarekin erantzunez.

Bigarren faseari ekin nion, baina nire aurretik korrika pasatzen zen 'barwoman' a ez zen nire oihuez konturatzen, altabozetatik irreten zen 'txunpa-txunpa' ren dezibelioek edozein komunikazio mota galerazten baitzuten. Orduan, beso eta aurpegiarekin imintzio exajeratuak egiten hasi nintzen kamareraren begiek errukiz begiratu zidaten arte: bigarren fasea lortu nuen! Hiru zuritoak, mostoa eta ardoa hartu nituen eta itzulera indarberrituta hasi nuen. Jakina, nire lagunengana heldu nintzenerako, basoak erdi hutsik zeuden, eta nire gorabeherak kontatzen saiatu arren, 'txunpa-txunpa' hark

"Orduan, beso eta aurpegiarekin imintzio exajeratuak egiten hasi nintzen kamareraren begiek errukiz begiratu zidaten arte: bigarren fasea lortu nuen! Hiru zuritoak, mostoa eta ardoa hartu nituen eta itzulera indarberrituta hasi nuen"

nire ahoa eta nire lagunen belarriak ataskatzen zituen. Gure elkarrizketaren kalitatea ikusita, kanpora joateko adostasuna lortu genuen mugimendu adierazgarri batekin. Kanpoan, bonbo bat buru barruan, kamisetak izerdiz eta zuritoz beterik, zapatetan mila oinarrastok utzitako zikinkeria eta aire ahokada bat. A! Asteburua! zelako momentu zoragarri eta ahaztezinak eskaintzen dizkigun...

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaitz Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Vicky-arentzako laguntza

9 urteko alaba duen 28 urteko Vicky Alcalde elgoibartarraren lagunak gara. Joan den urriaren 12an Soraluzen jasandako trafikoko-istripuaren ondorioz, burmuin-zauri larri batek sortutako paralisi partzialak ezinduta utzi zuen Vicky.

Donostiako Arantzazuko Amaren Ospitalean 7 hilabetez egon ostean, alta medikua eman diote, hitz egiteko eta mugitzeko gai ez den arren.

Gizarte Segurantzak burmuin-zauriotan espezializatutako zentrorik eskaintzen ez duenez, Vicky-k zentro pribaturen batera jo beharko luke. Arrasateko Aita Meni da Vicky hartzea onartu duen zentroetako bat.

Hauze litzateke errekeruperaketa, erabatekoa ez balitz ere, lortzeko aukera bakarra. Zentro horretako zerbitzuak ordaintzeko, hilean 800.000 pta. inguru beharko lirateke eta Vicky-k ezin du dirutza hori inolaz ere lortu.

Ez dakigu zenbat denbora beharko duen, ezta erabat errekeruperatuko ote den ere, baina Vickyrentzat gutako edonork bere lekuan eskatuko lukeena lortzen saiatzeko prest gaude.

Vicky-ren lagun gisa, hainbat ekintza antolatu ditugu sortuko diren gastuei aurre egiteko eta zuen ezinbesteko laguntza jasoko dugulakoan gaude. Horregatik, Elgoibarko herri-tarrongana jotzen dugu, zuen laguntzarik gabe gure ahaleginak erabat alferrikakoak izango bailirateke.

Diru-eskaintzaren bat egin nahi duenak, Elgoibarko edozein kutxa edo banketxetan izango du horretara bideratutako kontu korrontea.

Zuen laguntza izango dugulako uste osoan,

Vicky-ren lagunak

Euskadi-Irlanda

Ez da Indenpendentzia Ipar Irlandan lortu dutena, helburu horretatik oso urruti dagoen akordio bat baieztatzea baizik. Hala ere, botuen %29a ezetza izan da.

Ez ziren gehiago Euskal Elkarte

Autonomoan, Autonomi Estatutoaren kontra agertu zirenak.

Hauetatik batzuek, armen indarrez, bere ideiak gehiengoari inposatzen ahalgintzea erabaki zuten. Ipar Irlandan horrelakorik gertatuko den ikusteko dago; palestinarrei gertatu zaie Hamas erakundearekin. Nire ustez, Irlandan, guk hemen orain dela 20 urte Amnistia eta Autonomiarekin hasi genuen prozesuaren antzekoa hastera doaz.

Hemen, HBkoek hara begiratzeko esaten digute eta Independentzia eskatzen dute. Autodeterminazioa independentzia izateko asmoa dagoenean erabiltzen den tresna baino ez da.

Eta nire buruari hainbat galdera egi-ten dizkiot. Europan txanpon bakarra (Euroa), ejerzito bateratua eta Europaz kanporako politika bakarra. Europatik markatzen dizkigute lerroak ingurunean, industrian, nekazaritzan etab.

Bestalde, gobernu zentrala, duen boterea banatzera behartuta dago, Europara alde batetik eta autonomietara, bestetik.

Oraingoan, arlo garrantzitsuetan, heziketa eta kultura, osasuna, zergak, industria, errepide eta abarretan, gure esku daude erabakiak. Seguritate Soziala eta INEM: oraindik ez dago akordioa. Baina akordioak, tentsioak, akordio ezak, arlo batean edo bestean, Irlandan edo Palestinan, Europa barnean, beti izango dira.

Gainera, independentzia lortzeko lehenengo Nafarroa Euskal Elkarte Autonomoan integratzeko gehiengo lortu beharko litzateke, eta gero Euskadin independentziaren aldeko gehiengo garbia.

Lehen ere aipatuta daukat nazionalista direnen eta ez direnen arteko indar korrelazioa jakinda, batez ere, Nafarroan, noizko lortu gehiengo hori? Euskal gizartean, bi sektore hauen artean dagoen zatiketaren sakonduz ez dago Euskal Herri euskaldun bakar eta sendo bat lortzerik.

Gertaerak Europaren barnean kokatzera bultzatuko gaituzte, garai bakoitzean herri honetako gehiengoak nahi duen autonomia mailarekin. Eta hau dena ondo dakite, batzuk, Alderdi Jeltzalean.

Juanjo Baztarrika

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

Udal Kultura Sailaren zuzenketa

Kutura Sailak hil honetako EKAINeko GIDAn agertzen den akatsa zuzendu nahi du: ekainaren 23an, San Juan bezperan, 22:30ean ITXAROPENA abesbatzaren saioa egongo da Plaza Handian, eta ez Parrokiako abesbatzarena, gaztelaniazko testuan agertzen den bezala. Beraz, euskaraz agertzen dena ondo dago, baina ez gaztelaniazkoa.

Udal Kultura Saila



KEXAK

◆ **Guraso batzuek** kexa hau argitaratzeko eskatu digute: “**Joan den igandean, hilak 31, gure Kiroldegiko kantxa jatetxe bihurtu zuten, Elgoibarko eskubaloi taldeek etxeko partiduak jokatzera Azkoitira joan behar izan zutelarik.** Horren erantzukizuna duenari esan nahi diogu, duela hilabete batzuk, beste zeregin batzuetarako izan zitekeen dirua kantxa egokitzeko erabili zela, eta bestetik, eskubaloia gehingoak jarraitzen duen kirola ez bada ere, guretzat inportantea dela, are gehiago gure seme-alabentzat. Guk, geure **Kiroldegian, kirol instalazioak eduki arren, kanpora joan behar izan dugu Kopako partiduak jokatzera,** partidu hauetako jarraitzaileen ezinbesteko presentzia galeraziz. Orain artekoa ikusita, argi dago ez dugula inoren laguntzarik jasoko”.



TXALOAK

◆ Emakume batek deitu digu **Udala txalotu** nahi duela esateko. “Joan den astean herritar bat kexatu zen **Madalako parkean zuloak** zeudelako. Aste honetan bertan, **parkea konpontzeari** ekin diote. Udalak hain bizkor erantzutea txalotzekoa iruditzen zait”.

BAI, ESAN?



Gorka Sastre

Eskola Kiroleko koordinatzailea

Amaitu dira 97/98 ikasturteko Eskolarteko Kirolak. Urrian hasi eta maiatzaren azkenera arte luzatzen den Eskola Kirola egitasmoarekin zer lortu nahi den jakiteko deitu diogu Aitor Kapana-garekin batera, egitasmoko koordinatzailea den **Gorka Sastreri**.

- **Zein dira Eskola Kirolaren helbururik garrantzitsuenak?** - Helburu nagusia haurrek kirola egitea da, baina ez edonola. Era egoki eta atseginean, adituek bideratuta eta adin edo garapen estadio bakoitzari dagokion jarduerak proposatuz. Haurren garapenean hain garrantzitsuak diren kirol eta jolasek, gure ustez, kalitatezkoak izan behar dute.

- **Zein garrantzi du kirolak haurren heziketan?** - Garrantzia handia izateaz gain, jolasarena ere hainbestekoa da. Ezin dugu ahaztu, txikitatik, haurrak ikasitako gehiena edo guztia jolasten ikasi duela eta jolas horien atal nagusi bat kirol-jolasek osatzen dutela. Txikitatik euren gorputza ezagutzeko bide ezin hobea da eta baita beste hurrekin erlazioak sortzeko ere. Kirolaren mundua oso aberatsa da eta Eskola Kirola oinarritzat hartu behar dugu bizitzan haur edo gazte batek izango dituen kirol ohituretan.

- **Kontaguztu zein den egitasmoaren egitura, eragileak, etab.** - Ikastetxe guztietako kirol arduradunek, Patronatuko zuzendariak eta koordinatzaileok osatzen dugu. Bertan hartzen ditugu erabakiak eta gure lana horiek martxan jartzea da, hau da, programari bizitza eman, haurrak, klubak, monitorea, materiala eta instalazioak koordinatuz. Era berean, entrenamenduak prestatu maila eta adin desberdinei egokituak. Aurtengo programa berria da. Kalitate aldetik monitorea espezializatuekin lan egin dugu jarduera guztietan eta talde kiroltan klubetako begiraleekin aritu gara, haurrek euren adinera egokitutako jarduerak egin ditzaten. Kantitateari dagokionez, oraindik Elgoibarren egin gabe zeuden kirol berriak sartu ditugu, instalazio berriak, etab.

- **Zenbat ikasle aritu dira eta zein kirol izan dira estimatuenak?** - Programa berrian 445 haurrek hartu dute parte. Saskibaloia, futbola eta eskubaloiak aparte, partaidetza handiena tenisak, patinaiak, mendi irteerek rugbyak eta belar hockey-ak izan dute.

ESKERTZA



1998ko maiatzaren 29an, 81 urte zituela hil zen
ISABEL LAKA LIZARRIBARen sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana.



Eskolarteko Kirolak



argazki hauetan Eskolarteko Kirolatan irabazleak izan diren taldeak agertzen zaizkigu. Saskibaloiko, eskubaloiko eta areto futbolako txapeldunak agertzen dira, alebin eta infantil mailetan. Kadete mailako partehartzaileak denak batera agertzen dira eta argazki handikoak benjamin mailan aritu diren partehartzaile guztiak dira.

K a d e t e A k



● Kadeteak. Aurtan lehen aldiz egon da kategoria hau. Bi taldek hartu dute parte eta biak batera agertzen zaizkigu argazkian.

B e n j a m i n A k



POL-POL

T A B E R N A

Jai zoriontsuak igara!

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74

TINDATEGIA

Ondo pasa Trinitateak!

Foruen Enparantza, 4
Tel: 943 74 00 91



aLeBinAk

- **Ikas Trumoi** Eskubaloian txapeldunak
- **Pilar Girls.** Saskibaloiko eta areto futboleko txapeldunak.
- **Pilar All Star.** Saskibaloian eta eskubaloian txapelduna izan da.
- **Ikas Gol.** Areto futboleko eta eskubaloian txapeldunak.



iNfantilAk


- **Ikas Gorribeltz.** Saskibaloian eta eskubaloian txapeldunak dira.
- **Ikas Bolilla.** Saskibaloiko eta eskubaloiko txapeldunak dira.
- **Pilar Mix.** Areto futboleko irabazleak.



Trinitate jai zoriontsuak!

KAFETEGIA 

Giza Eskubideen Enparantza, 1
Tel. 943 74 16 00

 **Anchústegui s.a.**
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 74 20 38 - 74 23 71

Penarik ematen al diru Nagusien Tanborrada suspenditzeak?



ANE PALOMINO
13 urte, ikaslea

Piskat bai, ze gabian an-
bientia jartzen zaban eta ur-
tetzeko gogua ematen zuan.
Behintzat zeozer zauan
ikusteko. 18 urte izango ba-
nitxu hartuko naban parte.



JOSEBA AZPIAZU
29 urte, fresadorea

Tanborradak ez dit niri seku-
la ezer berezirik esan, baina
ohiturak galtzeak beti ematen
du pena. Halere, galdu
bada jendeari gehiegi esaten
ez diolako izango da, ez?



ESPERANZA DEL PINO
29 urte, etxeoandrea

Bai, noski. Horrelako gau-
zek beti ematen diote jaiei
kutsu berezia. Gainera, tra-
dizio bat galtzea suposatzen
badu, are da penagarriagoa.



CELSO BABARRO
43 urte, ajustatzailea

Hainbeste errekueratzea
kostatu duen ohitura herri-
koia galtzea benetan da pe-
nagarria. Itxura denez, ez
dago zaltasun gehiegirik.



LUZIA ELORZA
61 urte, etxeoandrea

Penagarrixa da, bai. Jai giro
espeziala eoten da. Gusta-
tzen jataz holako gauzak
baina gaztientzako dala
beitxantzen jata. Hala ere,
kuadrilan animako nitzake.



ANTONIO BALLESTEROS
50 urte, mekanikoa

Bai, ze ohiturak mantentzea
polita izaten da. Hala ere,
egun hauetan normalean ez
naiz Elgoibarren ibiltzen
eta tanborrada ez dut gertu-
tik bizi izan.

A H O L K U L A R I T Z A

BIKAIN
ASESORIA



Fiskala—Lanekoak—Kontabilitatea—Aseguruak

ERRENTA AITORPENAK EGITEN DIRA

Antonio Arrillaga, 4 behea - Tel/Faxa: 943 74 45 57 - Tel. mobila: 970 49 72 36

Udaleku irekiak

Atxutxiamaikarekin



uztailaren 1etik 17ra
astelehenetik ostiralera

Eskolaurreko 1-2-3

9:30 - 12:00
Prezioa: 3.000 pta.

Irteerak, jolasak, eskulanak, abestiak, sorpresak, ...



1-2 mailak

9:30 - 12:30
Prezioa: 3.000 pta.

Irteerak, San Fermin txiki eguna, jolasak, ...

3-4 mailak

9:30 - 12:30
Prezioa: 3.000 pta.

Mendi irteerak, hondartzara txangoa, San Fermin txiki, ...



IZENA EMATEKO

Ekainaren 8tik 12ra

ELGOIBARKO IZARRA K.E. (Ubitarte 4)

Tel: 74 16 26

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA Begirale Taldea
LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzza



● **Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketak**

San Bartolome jai-egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan oinarriak kaleratu ditu Udal Kultura Sailak. Aurten haurren eta nagusien lehiaketak antolatu dira. 18 urtetik beherako herritar guztiek hartu ahal izango dute parte eta hiru lehenengoentzako sariak egongo dira. Lanak uztailearen 6a baino lehen aurkeztu behar dira. Teknika eta tamaina librean, azalaren gaia Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena izango da. Nagusien lehiaketan ere gaia berbera da. Teknika librean eta euskarri gogorrean, lanek A2 formatoa izan beharko dute, eta ordenagailuz egindakoek, ostera, A3 neurria. Kartel guztietan "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 1998" testua jarri beharko da. Irabazlearentzako 60.000 pta.ko saria dago eta 15.000 pta.ko sari berezia lehenengo herritarrentzat. Lanak aurkezteko epea uztailearen 7an amaituko da eguerdiko 13:00ak baino lehen.

● **Udako fuskal Unibertsitaterako diru laguntzak**

Udal Euskal Unibertsitateak antolatu dituen XXVI. Udako Ikastaroetara joateko, Udalak ikastaroaren matrikula osoa, egonaldia izan ezik, odaintzeko diru laguntza emango die, beka gisa, langabetu eta ikasleei. Udako Ikastaroak uztailearen 6tik 10era bitartean izango dira Miarritzen eta uztailearen 6tik 11ra Iruñan. Bi tokiotan 40 ikastaro ezberdin antolatuko dira, hainbat gai jorratuko direlarik: antzerkigintza, arkitektura, soziologia,... Informazioa jasotzeko 74 43 66 zenbakira deitu.

Gaixo dagoen elgoibartar baten tratamendua ordaintzeko diru bilketa

Errifak saltzeaz gain, Trinitateetan txozna jarriko dute

Vicky Alcalde elgoibartarrak 28 urte ditu eta trafiko-istripu bat izan zuen 97ko urrian. Burmuinean lesio larriak jasan zituen eta ondorioz, ezinduta dago. Bere alaba Herri Eskolan ikasten ari da eta ikastetxe honetako hainbat gurasok, egoeraren larritasunaz kezkatuta, zerbait egin beharra zegoela erabaki zuten. Horrela, bada, Arrasateko Aita Meni ospitalean burmuineko lesioak sendatzeko tratamendu baten berri izan zuten baina hileko 800.000 pta.ko kostua omen du. Vicky Alcalderen senitarteko hurbilenek dirutza hau lortzerik ez zutela ikusita, dirua batzeari ekin diote. Errifak salduz eta Trinitate jaietan Nafarroa Plazan jarriko duten txoznatik ateratako diruari esker, Aita Meniko tratamenduari hasteko moduan egongo da Vicky. "Herritarren borondate onari dei egiten diogu, bere burua gobernatu ezin duen herritar baten errekuperazioa baitago jokoan. Errifak salgai jarri ditugu eta sari berezi bat prestatzen ari gara tabernari eta dendarien laguntzarekin. Hauen ar-



tean oso harrera ona izan dugu eta gainerako herritarrengandik ere, beste horrenbeste espero dugu". Elgoibarko aurrezki kutxa eta banketxeetan Vicky-ren tratamendua ordaintzeko kontu korrante bat ireki da, bakoitzak nahi duena eman dezan. Errifak denda eta taberna guztietan daude salgai 250 pta.n.

Elgoibarko Talde Antimilitarista desagertu egin da

Taldea jendeberritzeko deialdira ez da inor agertu

Joan den zapatuan eman zuen Elgoibarko Talde Antimilitaristak azken prentsaurrekoa. Duela pare bat aste deialdi publikoa egin zuten azken urteotako dinamika lagatzeko asmoa zutela esanez eta antimilitarismoaren inguruan lan egin nahi zuten herritarrek bilera batera deituz. Baina, inor ez zen agertu. Taldekoen hitzetan, "herritarren ixilitasuna ikusita eta Talde Antimilitaristaren desagertzea inori inporta zaion ala ez jakin gabe, gure lana amaitzera goaz, hasieran erabaki genuen



bezala". Dena dela, garbi utzi nahi izan zuten antimilitarismoaren inguruan lan handia dagoela egiteko oraindik, "jendeak uste du zerbitzu militarra profesionalizatuz arazoak konponduko direla baina hori ez da horrela, beste arazo batzuk sortuko baitira. Intsumisioa antimilitarismoaren barruko estrategia bat besterik ez da eta taldea desagertu arren, lan handia geratzen da egiteko". Bost bat urteko ibilbidearen ostean, Talde Antimilitaristako kideek, batzuetan "bakarrik sentitu" direla ere azaldu dute. Era berean, "gaur egun 50 intsumitu inguru daukagu Elgoibarren baina ez dauka horien jarraipen zehatzik. Behin edo behin hurreratu izan zaigu norbait baina interes propioek bultzatuta, informazioa jaso nahirik edo, baina taldean lan egiteko asmorik gabe". Hala ere, urte hauetako lanaren balantzea positiboa dela uste dute, "ekintza pilo bat eta lan inportantea egin baita".



Inazio Bereziartua Musikeskolako kontzertuak

Dagoeneko bi musika saio eskaini dituzte Musikeskolako ikasleek urte amaierako jaialdiaren barruan. Asteartean eta ostegunean izan ziren lehenengo biak eta hirugarrena, gaur, hilak 29, izango da. Kontzertu hauetan 150 bat neska-mutilek hartu dute parte 50 eta pieza inguru interpretatu dituzte.

Hiriol eta heziketa gune berriak Herri Institutuan

Herri Institutuko arduradunak, Udal agintariak, ikasleak eta gurasoak izan ziren frontoi berriaren eta hizkuntza laborategiaren inaugurazio ekitaldian. Argazkian ikus daitezkeen bezala, frontoiak badu berezitasun bat: horma ezkerrean izan beharrean eskuman duela. Arreiturre ikastetxean dago frontoia eta hizkuntza laborategia, berriz, Bernardo Ezenarron.



Ikastolako ikasle ohien bazkaria

Ikastolan ibilitako lehenengo bost promozioetako (1957-71) hainbat ikasle ohi eta irakasle bazkari baten bueltan elkartu ziren duela bi asteburu. Argazkian azaltzen direnak bildu ziren, baina berriz antolatzen bada, ziur gehiago elkartuko direla. Esan digutenez, trikiti soinu eta giro alaietan pasatu zuten eguna.



Herri Eskolako jaialdia eta mendi irteera

Herri Eskolako ikasleen urte amaierako jaialdia izan zen pasa den ostiralean Herriko Antzokian. Arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak bitartean, Herri Eskolako 166 neska-mutil, Antzokiko eskenatokira igo eta kantuan, bertsoetan eta antzezle lanetan aritu ziren. Bi urtetik aurrerako ikasle guztiak hartu zuten parte eta ikastetxeko arduradunek esan digutenez, Antzokia beteta zegoen guraso, irakasle eta ikaslez.

Beste argazkian, Irukerutzeta tontorrean agertzen zaizkigunak Herri Eskolako 4. mailako ikasleak dira. Ikastetxekoek esan digutenez, ikasle eta irakasleek bi eguneko egonaldia egin zuten ingurune horretan, Txaboleta bordan gaua pasatu zutelarik. Asmoa natura ger-tutik ezagutzea zen.

● Bi elgoibartar zaurituta Zaragozako autobus istripuan

Joan den astearte goizaldean, Benidorm-era zihoan autobus batek istripua izan zuen Zaragoza aldean. BARRREnek jakin ahal izan duenez, senar-emazte elgoibartar bat istripuan zaurituta suertatu zen. Margarita Iriondo eta F. Lizarralde dira elgoibartar zaurituak. Hauekin batera, euren koinata-koinatuak zihoazen, Soralezukoak. Jakin dugunez, istripuaren ondorioz izan dituzten zauriak ez dira larriak izan, hezur hausketak batez ere. Istripuaren ondoren, Zaragozako ospitalean ingresatu zituzten senar-emazte elgoibartarrak baina dagoeneko Mendaroko ospitalera ekarri dituzte.

● Jasone Osororen Tentazioak sarituta


Liburu Egunean, apirilak 23, Bizkai-ko liburu azoketan gehien saldu zen liburua izan zen Jasone Osoro BARRREneko lankidearen 'Tentazioak' ipuin-bilduma.

Arrazoi honegatik Jasonek 'Zazpiki Kale' izeneko saria jaso zuen joan den astelehen goizean Bilboko Arelean kokatutako liburu azokan. Saria Bilboko Udalak eta Liburu Azoken Elkartek ematen du. 'Tentazioak' ipuin-bildumaren bigarren edizioa duela aste batzuk kaleratu eta jakin dugunez, salmentak oso ondo doaz.



● **“Zu Europa zara”**

Asteazken goizean, “Zu Europa zara” lemapean herriz herri kontzientiazio kanpaina egiten ari den autobusa Elgoibarrera iritsi zen. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara bitartean Plaza Haundian egon zen autobusa, herritarrei Europari buruzko informazioa emateko. Esan zigutenez, oso jende gutxi gerturatu zen baina 11:00ak aldera Herri Institutuko ikasle talde bat joan zen. Neska-mutil hauek autobus barruan bideo informatibo bat ikusi zuten, azalpenak jaso zituzten eta ordenagailu batean European zehar bidaia birtual bat egiteko aukera izan zuten.



Osasunkume Bizitzako Abentura’ jaia Elgoibarren ospatuko da

Ekainaren 14an izango da eta 5.000 pertsona espero dira

Eusko Jaurlaritzak babestuta, Edex taldeak bultzatuta eta udaletxeetako prebentzio sailean lan egiten duten teknikarien eta herriko ikastetxeen laguntzarekin urtero antolatzen da Osasunkume programa. Helburua, drogomenpekotasunen prebentzioa haurren artean lantzea da. Urtero, kurtso amaieran jai erraldoi bat antolatzen da eta aurtengo edizioa Elgoibarren izango da.

Urtero jai haundi bat eginez ematen zaio amaiera ikasturtean zehar lantzen den Osasunkume programari. Drogomenpekotasunen prebentzioa lantzea du helburu Osasunkumek eta Eukal Autonomi Elkarteko 30.000 ikaslek hartzen dute parte, L.H.ko 3., 4. eta 5. mailako neska-mutilak izanik.

Pailazoak eta opari zozketa

Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara bitartean irauko du jaiak. Egun osoan zehar hainbat eta hainbat ekitaldi izango dira ikusgai Foruen Enparantza eta Nafarroa Plazaren artean. Besteak beste, haurrentzako parkea egongo da, txotxongiloak, txapa tailerrak, Kermessak deitzen diren jolasak eta abar. Horrez gain, Agipad, Errotatxo eta KOKOE elkarteek stand bana jarriko dute. Gainera, pailazo-




Kati Pons, Udaleko Drogomenpekotasunen teknikaria da programaren arduraduna.

ak egongo dira, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, erraldoi eta buruhandien kalejira izango da, Taupadaren antzezpina, opariak zozketatuko dira eta Osasunkume programako lehiaketaren sari banaketa egingo da.

Guztira, ikasle, guraso, irakasle, eta teknikarien artean 5.000 pertsona inguraztea espero da.

Inazio Bereziartua Musikeskola



Instrumentuak, dantza, lengoia musikalak, kantua eta musika tailerra (5-6 urte).

Musika zaletuentzat edo ikasi nahi duten pertsona heldu eta nagusientzat klase bereziak

**MATRIKULA
ZABALIK**

Izen-ematea: ekainaren 1etik 12ra ✳
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara ✳
INFORMAZIO GEHIAGO: Aita Agirre plaza, 3 - Tel: 943 74 21 45

KiliBARRREN

Ekainaren 6a
47. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



Trinitate jaiak gainean ditugu. Hori dela eta, hilabete honetan Trinitate egunean ateratako argazki bat erakustea erabaki dugu. Erretrotua **Juan Loiolak** laga digu eta berak esan digunez 1967 urte ingurukoa da.

Garai hartan, gaur egun bezala, urtero-urtero iza-

ten ziren bertsolariak jai herrikoi hauetan. Hona hemen ekaineko protagonisten izen-abizenak. Ezkerretik hasita: **Juan Loiola** eta **Patxi Urbieta** “**Erreka-barren**” bertsolariak eta **Jose Mari Zelaia** “**Biskai**”, gajartzaile aritu zena.

ARMUETA

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

ETXERAINOKO ZERBITZUA

San Bartolome, 16
Tel: 943 74 06 40
ELGOIBAR



KALITATEA

TEXTIL
HOGAR
LAGU-

Orain San Roke

Euskal Bizikleta Mendaron



Gure inguruan hain estimatua den kirol honek bisita egin zigun aurreko astean. Bi egunetan Kilimo inguruak kolorez eta bizikletaz jantzi ziren. Gure artean izan genituen txirrindularirik onentsuenak. Bi orriotako erretratuetan Euskal Bizikletak Mendarotik pasatzerakoan lagatako arrasto batzuk erakusten saiatu gara.

Asteazkenean, hilak 27, Mendaron izan zen Euskal Bizikletaren lehen etapako helmuga. Gaua deskantsuan pasa ostean, ostegunean Mendaroko Udaletxe inguruan izan genituen txirrindulariak. Erretratuak alkateak zinta moztu zuen unea ikus dezakegu.



IMANOL LARRAÑAGA

Esan bezala, txirrindularirik onentsuenak izan ziren Mendaron. Erretratuetan horietako hiru dauzkagu: Bjarne Riis, Jan Ullricj eta Laurent Jalabert. Ullricj iazko Tourreko irabazlea, Riis, Indurainek Tourrean zuen nagusitasunarekin amaitu zuena eta Jalabert, Euskal Bizikleta irabazteko faboritoen artean irten zena. Azkenean bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.



Mari Jose
GOZO-TOKIA
 San Inazio, 3. ☎ 943 74 16 93
Zorionak txiki eta haundiei !

PUB
elgoibar

Euskadi-Euskalteleko txirrindulariak ere gogor aritu ziren baina ezin izan zuten garaipenik lortu. Ruben Gorosperen esanetara dauden gazteek oraindik badute euskal txirrindulari zaleoi pozik emateko astirik. ETBkoak ere Mendaron izan genituen euren kamarak hartuta.



Indurainek laga zuen txirrindularitza baina bere anaia Mendaron izan genuen. Prudenek ez du erraza izango anaiak lortutakoa lortzea baina zalantzak argitzeko etxean dauka aholkularirik onena.



Kontuan hartu elkarrizketa hau Mendarotik irten zen Euskal Bizikletaren etapa hasi baino orduerdi lehenago izan genuela, ostegunean hain zuzen ere. Horrela erantzun zien Abrahamek BARENen galderei.

Abraham Olano

- Konpetitzeko intentzioarekin ala Tourra prestatzeko etorri zara Euskal bizikletara? - Bueno, Tourrerako prestakuntza ere badoa aurrera eta Euskal Bizikletan gauzak lasai hartzeko moduan nagoela uste dut. Badakit ez nagoela momenturik onenean eta larunbateko erlojuaren kontrako aproba pasa ondoren ikusiko dut zer egiteko moduan nagoen.



"Tourreko iazko 4. postua hobetzeko ilusioa daukat"

- Beraz, badirudi Tourra duzula buruan. Iazkoa hobetzeko gogoarekin? - Ilusio horrekin noa. Ez da erraza Tourrean laugarren postua hobetzea baina

borroka horretan hasteko ilusioarekin nago.

- Zeinekin borrokatu beharko duzu Parisko podiumera igotzeko? - Ez dakit, Tourrean oso zaila da aurrez faboritoak zein izango diren esatea, baina iaz aurrean ibili zirenak izango direla uste dut.

- Euskal Bizikleta zeinek irabaziko du? - Miguel Angel Peña eta Aitor Garmendia oso ondo daude, Jalabert eta Telekom talde osoa ere ilusio eta gogo handiarekin ikusi nituen atzo (1. etapari buruz ari zen).

Erlojuaren kontra Olano ibili zen ondoren eta hemen ateratako abantaila nahikoa izan zuen Euskal Bizikleta irabazteko. Ea Tourrean ere beste horrenbeste egin eta Parisen gorengo postuan ikusteko zortea izaten dugun.

**Aprobetxatu udabiaz gida
baita eta abarretan**

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

**bena ematerakozan %10eko
beherapena gaste
txartelarekin**

❖ **1998 urterako dirulaguntzak elkarteentzat**

Joan zen osteguneko plenoan 1998 ekitaldian etekinik gabeko elkarte eta taldeei emango zaizkien dirulaguntzak onartu ziren. Ondoko taulan zehazten dira banan banan.

ELKARTEA DIRULAGUNTZA

- Aingeru Guardako
Jai Batzordea 85.000 pta.
- Aizpe.
Jubilatuen bazkaria. . . 350.000 pta.
- Atzegi. 25.000 pta.
- Andramariko
Jai Batzordea 110.000 pta.
- Trinidadeko
Jai Batzordea 110.000 pta.
- DEBEMEN.
San Isidro jaiak 70.000 pta.
- Proyecto Hombre 25.000 pta.
- Kilometroak 98 30.000 pta.
- Arno Guraso Elkarte . . 500.000 pta.
- Kilimon C.D. 470.000 pta.
- Kilimon Zahar
Ehiza elkarte 115.000 pta.
- Lagun Betikoak
Jubilatuen Elkarte . . . 110.000 pta.
- **GUZTIRA 2.000.000 pta.**

❖ **Aupa Mendaro himnoa**

Duela 6 urte, 1992an hain justu, Juan Colmenero jaunak denontzat ezaguna den *Aupa Mendaro* martxa konposatu zuen, urte hartako jaietan estrenatu zena. Orain gutxi, Juan Carlos Irizar musikagileak martxa hura armonizatu eta himno bihurtu du eta M. Itziar Aizpuruak hitzak jarri dizkio. Gainera, Mendaroko Eliz Abesbatzak kantatuta eta Debako Bandak interpretatuta, aipaturiko himnoa eta beste zenbait abesti grabatzeko asmoa dago, CDa eta kasetea argitaratuko direlarik. Estreinaldia uztailaren 25ean izango da, Santixo eguneko tanborradaren ostean. Kontzertua Juan Carlos Irizarren zuzendaritzapean egingo da Herriko Enparantzaren.

Trinidadeko jaiak

Ekainaren 6an hasi eta 8ra bitartean, Trinidadeko jaiak ospatuko dira Mendaron. Hona hemen jaien egitaraua:

EKAINAK 6, larunbata

17:00etan: kanpai soinu eta txafli-guak.

EKAINAK 7, igandea

10:00etan: Mendaroko txistularien kalejira

11:30ean: Meza nagusia Trinidadeko ermitan. Mezaren amaieran Mendaroko abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan.

Ondoren, Txistulariak eta Ospas eta Sabin trikitilarien saioa.

12:30ean: Euskal Kirolak. Peñagari-kano aizkolaria (8 enbor kanalerdi-

ko), Florentino eta Mintxeta trontzulariak (20 enbor kanalerdiko) eta Egi eta Mintxeta gaztea harrijasotzaileak.

EKAINAK 8, astelehena

11:00etan: Meza Santua Trinidadeko ermitan.

12:00etan: Ikastolako haurren bertso saioa.

Ondoren, Laja eta Beraztegi trikitilariekin hamaiketako umoretsua.

19:30ean: Urteroko bakailo jana Aizpen.

22:30ean: Erromeria Trinidadeko Plazan.

Herriko Enparantza eta Trinidadeko parkearen inaugurazioa

Pixkanaka-pixkanaka amaitzen doaz A.I.U. 03 inguruko urbanizazio obrak. Ekainaren 14an, hain zuzen, eguerdiko 12:00etan Herriko Enparantza eta Trinidadeko parkearen

inaugurazio ekitaldia izango da. Herri-ritar guztiak daude gonbidatuak inauguraziora eta bertan hamaiketako eskainiko zaiei hurreratzen direnei.





Zer diote legeek?



- 1978ko ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK
- DIO HIZKUNTZARI BURUZ:**

ZERA

3. artikulua:


- 1- El castellano es la lengua oficial del estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
- 2- Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con su Estatuto.



- EUSKAL HERRIRAKO AUTONOMIA ESTATUTOA

6. artikulua:

- 1- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta biztanle guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.



- NAFARROAKO FORU-ELKARTEA.

AMEJORAMENDU LEGEA

9. artikulua:

- 1- Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
- 2- Euskarak ere hizkuntz ofizialtasuna izango du Nafarroako lurralde euskaldunak.

- EUSKARAREN FORU-LEGEA:

2. artikulua:

- 1- Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.



- 1958ko URRIAREN 4ko FRANTZIAKO KONSTITUZIOAK
- ZERA DIO:**

2. artikulua:

Le Français est la langue de La République.



●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Unai Astiazaran Makazaga (Maiatzak 1)
- Egoitz Maiora Otaegi (Maiatzak 15)
- Unai Arrese Juaristi (Maiatzak 19)
- Jokin Arriola Arregi (Maiatzak 26)

●●●● EZKONDUTAKOAK ●●●●

- Antxon Alvarez eta Sonia Zambrano (Maiatzak 2)
- Jon Iriondo eta Alicia Osoro (Maiatzak 16)
- German Meabebasterretxea eta Idoia Oñederra (Maiatzak 23)
- Nekane Etxaniz eta Aitor Agirrezabala (Maiatzak 23)
- Sonia Roman eta Jose Ruiz (Maiatzak 23)
- Ibare Vela eta Enrike Alvarez (Maiatzak 23)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Jose Luis Gabilondo Juaristi, 54 urte (Maiatzak 15)
- M. Jesus Etxeberria Landabaso, 71 urte (Maiatzak 16)
- Herminia Lopez Bravo, 68 urte (Maiatzak 24)
- Isabel Laka Lizarribar, 81 urte (Maiatzak 29)

Jacinto Azpiazu Kruzelegi (1907-1975)



- 1907ko otsailaren 10ean jaio zen Errosario kalean. 6 anai-arreba ziren, laugarrena bera.
- Parrokiko monagiloa zela anekdota polita gertatu zitzaion. Meza laguntzen zegoela, "Misal" a aldareko leku batetik bestera aldatzean, Jacinto apaizaren atzetik pasatu beharrean, aurretik egin zuen. Demaseko errieta jaso ondoren, betirako laga zituen monagilo lanak.
- Gaztetan futbolean, esku pilotan eta beste kirol batzuetan aritzen zen. Eskola Publikoetan ikasi zuen.
- Lantegi askotan ibili zen lanean. Gabilondo y Cía.n, Alkortan, San Pedron, Soraluze-ko M. Zubiaurren eta azkenik, Sigman, beti ere tornulari lanetan.
- San Luis Gonzaga kongregaziokoa eta 'Adoración Nocturna'koa zen.
- Inazio Bereziartua zuzendari zela, Musika Bandan eta Parroki abesbatzean ibili zen Jazinto.
- Donostian egin zuen soldaduzka. 1936ko gerratean, urtebete Santoñan eta beste bi urte Puerto Santa Mariako gartzelan pasatu zituen.
- 1941ean Dina Lasarekin ezkondu eta 2 mutil eduki zituzten.
- Abertzale amorratua, zintzoa eta hitzekoa zen Jazinto. Famili girokoa, oso estimatua zen kuadrilan. Euskal kantak abestea, kuadrila giroan txantxetan jardutea eta jokoan egitea, irakurtzea eta, batez ere, emaztearekin pasiatzea zuen gogoko.
- Beti zegoen umore onez eta irribartsu. Sinismen handiko gizona zen.
- 1975eko urtarrilaren 15ean hil zen 68 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



A

ste honetako erreporta-
jeen orrialdeetan 97/98ko
Eskolarteko Kirolen berri
ematen dugu. Goian dau-
kagun erretratua Eskolarte-
ko Kirolen sari banaketakoa
da, baina duela urte mordo
bat ateratakoa. **Andres**

Alberdik ekarri digu argazkia eta 20 bat urte, gutxi gorabe-
hera, izango dituela uste dugu. Ikusiko duzuen bezala, Esko-

larteko Kirolen sari banaketa Plaza Handian egiten zen, ber-
tan kokatzen zen kioskoan. Argazkikoa ikastolako talde txal-
pelduna dugu.

Ezkerretik hasita tente: **Andres Alberdi irakaslea, Jesus U-
bera, Anton Mari Arizmendi, Ruben Arozena, Ales Arrieta, Francis Arrese eta Alberto Mujika.**

Makurtuta: **Imanol Etxaniz, Jon Sanz eta Andoni Goi-
kolea.**

Atzean, mahai bueltan, aurkezpen lanetan: **Imanol Kon-
de eta Anjel Iriondo.**

PATXI

harategia

Ondo
pasa
Trinitat

San Bartolome, 30
Tel: 943 74 35 04

MIREN
arraindegia



Trinitate

Santa Ana, z/g
943 74 34 49



San Frantzisko, 60 • Tel: 943 74 19 43

Eskubaloia: senior mutilek eta kadeteen nesken taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi dute

14 jokalarri elgoibartar Gipuzkoako selekziorako hautatu dituzte

UNZETA KADETE NESKAK



SENIOR MUTILAK



IKAS-GORRIBELTZ



Eskubaloiko kadete neskek eta senior mailako taldea, Gipuzkoako Kopako txapelduinak izan dira. Kadete nesken mailako taldeak benetan denboraldi bikaina egin du. Begira emaitza hauei: Ligako, Federazio Kopako eta Gipuzkoako Kopako txapelkun geratu dira. Honez gain, hiru txapelketetan jokatu dituzten partidu guztiak irabazi dituzte. Gipuzkoako Koparen finaleko joaneko partidua etxean izan zen eta 19 eta 10 irabazi zuten Bidebietaren aurka. Joan den asteburuan itzuleko partidua jokatu zuten eta emaitza 8 eta 13 izan zen elgoibartarren alde.

Senior mailako taldea, ligan gorabehera handiak izan baditu ere, Gipuzkoako kopako txapelkun geratu da. Azken partidua duela bi zapatu jokatu behar zuten Olaziaga Kiroldegian Urnietako taldearen aurka. Baina urnietarrak ez ziren agertu, itxuraz, arbitro bat ez zelako euren gustukoa. Automatikoki, elgoibartarrak Kopako txapelkunak izan dira.

14 elgoibartar Gipuzkoako selekzioan

Elgoibarko eskubaloia gorengo mailan dagoen zalantzarik ez dago. Izan ere, 14 jokalarri Gipuzkoako selekziorako hautatuko dituzte: kadete nesken mailan, Oihana Apellaniz, Ane Garmendia eta Julia Fernandez. Jubenil nesketan, Ibana Loiola, Miren Beitia, Arrate taldean jokatzen duten Arianne Peñaranda, Aihnoa Torres eta Amaia Jauregi eta Bidebideta taldeko kidea den Leticia Astray. Azkenik, jubnil mutiletan, Beñat Leibar, Julen Hernandez, Kepa Mendikute, Ander Goikoetxea (Bidasoa taldean dagoena) eta Unai Arrieta (Arrate) izan dira hautatutakoak.

Ikas-Gorribeltz, Gipuzkoako txapelketa

Ikastolako Ikas-Gorribeltz taldea Eskolarteko Gipuzkoako txapelkun geratu da eskubaloian. Pasa den asteburuan Euskadiko Txapelketako bi partidu jokatu zituzten eta datorren asteburuan beste bat jokatuko dute, Nafarroakoen kontra, hain zuzen. Txapelketan gogor aritu badira ere, ez dute finalean egoterik izango.

● Egoitz Mora, Espainiako Judo txapeldunordea

Ibai Kirol Elkarteko Egoitz Morak bigarren urtez jarraian hartu du parte Espainiako Judo Txapelketan 78 kilotik gorako pisuan. Maiatzaren 28tik 30era bitartean Madrilan jokatu zen Espainiko txapelketa eta Egoitzek zilarrezko domina eskuratu zuen. Gogora ekarri behar da iaz brontzezko domina lortu zuela Egoitzek txapelketa berean, baina 78 kilotik beherakoen mailan. Aurten ezinezkoa izan da pisu berean mantentzea baina finalera iristea lortu zuen. Aipatzekoa da Gaztela-Mantxako ordezkariaren aurka egin zuela azken borroka eta judoka honek 127 kilo pisatzen zituela. Egoitzek, ordea, 86 kilo baino ez. Egoitz ondo hasi bazen ere, azkenean pisuan zegoen alde erabakiorra izan zen.



Bestalde, Gorka Garate eta Andoni Atriok brontzea lortu zuten joan den asteburuan Legazpin jokatu zen Nazioarteko txapelketan. Frantziako hiru klubek eta Kantabria, Nafarroa, Errioxa eta Euskadiko klubek hartu zuten parte. Argazkian, Egoitz, ezkerretik hasita lehenengoa.

● Maialen Mora, Euskadiko txapelduna pisu jaurtiketan

Maialen Mora eta Ana Etxaniz Basaurin jokatu zen Euskadiko Infantilen Atletismo Txapelketan aritu ziren. Maialen Morak pisu jaurtiketan txapela eskuratu zuen 9,37 metroko jaurtiketarekin. Ana Etxaniz, berriz, 1.000 metrotan bosgarren lekuan sailkatu zen 3'20" denborarekin. Datorren domekan, Mintxeta Atletismo Taldeko neska-mutilak Azkoitin izango dira 6 eta 13 urte bitarteko eskolarteko lasterketa herrikoian parte hartzeko.

Alebinen Gipuzkoako Txapelketa




Bihar, hilak 6, Mintxeta Atletismo Taldeko alebinek Gipuzkoako Atletismo Txapelketan parte hartuko dute. Goizeko 10:30ean izango dira probak Mintxetan. Pisu jaurtiketa, altuera jautzia, 150 metro hesietako finalak eta 60 metroen finalerdiak eta finalak jokatuko dira.

Julen Konde aukeratu dute C.D.ko presidente

Zuzendaritza berriaren asmoa herriko gazteei Haundin jokatzeko aukera ematea da



Ezkerrean, J. R. Zabala, gaur egungo lehendakaria. Eskuman, Julen Konde, lehendakari berria.



leonardo

Goian eta ezkerrean, Xabi Alonso lehendakariarekin. Ondoan, Idarraga saria ematen. Behean, futbola utzi duten jokalaria eta eskuman, Haritz Taldeari omenaldia.

Joan den asteartean 27 bazkide elkartu ziren Club Deportivokoko presidente berria aukeratzeko. Bazkideek aho batez onartu zuten Julen Konde lehendakaritzarako. Gaur egungo presidentea den Jose Ramon Zabalaren agintealdia hilaren 30ean amaitzen da. Egun batzuk beranduago, balantze ekonomikoaren berri emango dute eta orduan hasiko da presidente berriaren agintealdia. Julen Kondek esan bezala, “nik ez daukat esperien-tziarik zeregin hauetan baina presidenteordea Manolo Esnaola ‘Muxi’ izango denez, haren atzetik ibili beharko naiz”. Idazkaria Ricardo Garate izango da, diruzaina Aurelio Arenas eta bokalal ondorengo hauek: Jorge Feijoo, Jose Inazio Laskurain, Santi Carrascosa, Angel Etxabe eta Nicolas Etxabe.

Bileran, Haundiren egoeraren berri eman zuen Kondek. “8 jokalarirekin geratu gara. Batzuek futbola utzi dute eta beste batzuk Eibarko jokalaria ziren. Guarrotxena, Gurrutxaga edo Díez-en or-

dezkoak topatzea zaila izango da. Ez dakigu 2B mailan jarraitzeko moduko taldea osatzeko gai izango garen baina herriko gazteei aukera eman nahi diegu”. Jubenilen eta 2. erregionalaren igoe-
rak gogora ekarri zituen Kondek, “kalitatezko jokalaria badauzkagula diote teknikoek, beraz, eman diezaiegun aukera bat”.

Konderen esanetan, Ondarroako entrenatzailea izandako Txomin Arkotxa berritxuarra entrenatuko du 98/99an Haundi taldea. “Haundin geratuko diren 8 jokalariez gain, beste 4 edo 5 kanpotik ekarri beharko dira eta fitxajeak egitea Arkotxaren esku egongo da. 20ko plantila osatzeko falta diren 7-8 jokalaria elgoibartarrak izatea nahiko genuke”.

Urte amaierako afaria

200 bat lagun elkartu ziren Kiroldegiko kantxan joan den zapatu gauean, Club Deportivok antolatutako urte amaierako afarian. Dantzaldiaren aurretik, futbola utzi duten jokalaria eta Haritz Dantzari Taldea omendu zituzten. Era berean, ‘Idarraga Saria’ eman zitzaion Haundiko jokari erregularrena izan den Gorka Guarrotxenari.

● Kanpotarrak nagusi Ehiza Txakurren ‘Trinitate Saria’n

Ehiza txakurren ‘Trinitate Saria’ jokatu zen duela bi zapatu Albitxuriko zelaian. Txakur kontinentalen atalean, Julio Rojas izan zen irabazlea ‘Izar’ Spaniel breton arrazako txakurrekin. Britainiarren txapelketa, berriz, Josu Carrascok irabazi zuen ‘Inos’ Setter ingelesarekin. Trinitate Saria azken honek eskuratu zuen. Txapelketan 12 lagunek hartu zuten parte Pointer, Spaniel ingeles, Brako aleman eta Spaniel bretoi arrazako txakurrekin.



aitor zabala

Bestetik, aurreko domekan jokatu zen pitxoi tiraketan, lehenengo postuan Luis Etxebarri bizkaitarra sailkatu zen. Bigarren lekua Unai Oñederra elgoibartar gazteak eskuratu zuen. Parte hartu zuen beste elgoibartarra, Iñaki Mancisidor, zortzigarren geratu zen.

● Jubenilen txirrindulari taldea, Gipuzkoako txapelduna

Hilaren 23an, Itsasondon jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan, Elgoibarko Lagun Taldeko jubenilak txapeldun geratu ziren erlojuaren kontrako proban. Talde hau Soroluzeko bi anai, Oier eta Jon Oregik, eta hiru elgoibartarrek osatzen dute: Unai Etxeberria, Juan Ramon Bellón eta Antxon Etxanizek.

KIROL ALBISTEAK

Trinitate Jaiak, hilak 6 eta 7

III. Artisau Azoka, Haurren Tanborrada eta Anje Duhalderen kontzertua izango dira, besteak beste

Aurtengo Trinitate Jaiak ekitaldiz beterik datoz, nahiz eta dagoeneko jakina den ez dela Nagusien Tanborradarik izango. Hala ere, izango da beste tanborradarik, Musikeskolak antolatzen duen Haurren Tanborrada, alegia. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Musikeskolako arduradunek ahalegin berezia egiten dute urtero karroza ezberdin bat ateratzeko. Aurten ere, zein baino zein karroza ederragoa prestatzen ari dira.

Dantzaldia Bandarekin

Trinitate bezperan, hilak 6, Musika Bandarekin dantzaldia izango da Plaza Handian gaueko 23:00etan. Jose Antonio Osoro Bandako zuzendariak esan digunez, 20 bat pieza ezberdin joko dituzte. "27 urte eon diaz bailabliak ein be Elgoibarren. Edadeko askok gogoratu dabe agarrauan eitxen zabeneko sasoa. 50 eta 60 urteko piezak joko ditxugu, tanguak, pasodobliak, boferuak eta holakuak. Kasuren batian ere izan leike parian tokatzia agarrauan estreinakoz ein zabenian jotako piezia edo rekuerdo berezixa ekartzen badan kanturen bat. Benetan politxa izan leike eta horregatik edadeko jendia animau nahi dou batez ere".

Musikeskolako dantza jaialdia

Urteroko ohiturari jarraituz, Musikeskolako dantza adarreko ikasleek, dantza tradizionalari eskainitako jaialdia egingo dute arratsaldeko 17:00etatik aurrera Plaza Handian. Euria izanez gero, ikuskizuna Kiroldegian egingo litzateke. Musikeskolako haurrekin batera, Udal Txistulari Taldea eta Haritz Dantzari


Taldekoak arituko dira. Jaialdi hau Haritz Dantzari Taldeak sorreratik egiten duena bada ere, azken urteotan, Musikeskolaren urte amaierako jaialdi bihurtu da, aurtengoan 250 hurrek parte hartuko dutelarik. Aurten Herriko Dultzaineroek 25 urte betetzen dituztela eta, Larrain dantza eskainiz amaituko dute saioa eta, bide batez, Haritz Dantzari Taldeak bere esker ona luzatuko die dultzaineroei.

Barrakak dohainik

Haurrentzako bereziki antolatutako ekintzarik ere badago. Zapatu goizean, 11:00etatik 13:00ak bitartean, Aita Agirre plazan kokatuta dauden barraketa doan ibiltzeko aukera izango dute haur guztiek. Honez gain, domeka arratsaldean, ikuskizun berezia egongo da Plaza Handian *Txoronpio*, *Pantxi* eta *Pantxo* pailazoen eskutik.

III. Artisau Azoka

Domeka goiz osoan zehar, Leku-Ederreko parkean, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako 30 artisau lanean ikusteko aukera izango da. Abarketak, egurrezko jostailuak, eskulanak, zumea, saskigintza, burdin langintza, larruzko lanak, harrizko miniaturak,... denetik izango da. 30 artisau hauetatik 4 herrikoak dira: Mari Karmen Elorza gantxioloa egiten, Jose Elizondo egurra tailatzen, eta *Eskuz* Elkartekoak eta Jose



Artisau azokaren 3. edizioa izango da aurten. Anje Duhalde eta Zigor Gazkezek kontzertua emango dute domekan.

Membrillera eskulanak lantzen.

Musika emanaldiei dagokienean, domeka arratsaldean, Anje Duhalde abeslari ezagunak eta Zigor Gazkez elgoibartarrak kontzertua emango dute Plaza Handian. Saioa arratsaldeko 19:30ean izango da.

Ametza
KAFETEGIA

imanole Jai zorianuak igara!
GOZOTEGIA
San Frantzisko, 48 • Tel: 943 74 41 37

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena: Dantzari Eguna Aparteko ikuskizuna eskaini zuten dantza taldeek

Joan den domekan, eguerdiko 12:30etik 14:15era bitartean, kasik bi orduz luzatu zen Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrenean antolatu zen Dantzari Eguneko ikuskizuna. Iparraldeko, Nafarroako, Bizkaiko eta Gipuzkoako dantzek, guztiek izan zuten lekua Plaza Handian egin zen dantza saioan. Lehendabizi, Udaleko agintariak, Haritz Dantzari Taldekoak, Galdakaoko Andra Mari-koek, Portugaleteko Elai-Alaikoek eta Añorgako Arkaitz taldekoek oroigarriak eta opariak elkartrukatu zituzten. Omenaldien tarte honetan, Juan Antonio Urbeltz dantza gaietan jakituna denak, opari berezia jaso zuen Haritz Dantzari Taldekoen eskutik. Duela bi urte izan zen Kilometroak jaian Haritz Dantzari Taldearen lana eskertuz, Andrade eskultore elgoibartarrak egindako oroigarria jaso zuen

Jose Inazio Sarasuak Ikastolako ordezkarien eskutik.

Opariak banatu eta esker oneko hitzen ostean, dantza ikuskizuna hasi zen. Haritz Dantzari Taldekoak izan ziren dantza egiten lehenengoak, Gipuzkoako dantza sorta luzearekin. Ondoren, Zuberoako kontrapasa ikusgarria eskaini zuten Portugaleteko Elai-Alai Taldeko dantzariak. Hirugarren taldea, Añorgako Arkaitz izan zen, Nafarroako eta Baxe Nafarroako dantzekin. Irten ziren azkenak, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldekoak izan ziren. Bizkaiko dantzak erakutsi zituzten hauek. Aipamen berezia merezi du Arratiako jotak hain ederki dantzatu zituen bikoteak. Gutxitan izaten da Elgoibarren hain dantza berezia ikusteko aukera eta ikusleagoak jakin zuen hori apreziatzen txalo sorta beroarekin.



Hitzaldia

EUROAREN ERAGINA MERKATARITZAN

Merkatal dendetako arduradun eta langileei zuzendua

Hizlaria: Felix Ares de Blas

Tokia: Elgoibarko Kultur Etxea

Eguna: ekainak 11, osteguna

Ordua: 20:00etan

Antolatzailea: Txankakua Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzu Elkarte

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Saila

Informazioa eta izen-ematea: Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkarte. **Tel:** 943 20 66 66



Trinitate jai
zoriantrak
izara!

KAFETEGIA
943 74 42 65



Onda pasa Trinitate jaiak!

San Frantzisko 32 ☐ 943 74 18 35

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI (EPA) 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

5 ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA
 Gaztetxean

19:00 AKUARELA ERAKUSKETA
 Egilea: Alfonso Tricio
 Kultur Etxean
 Hilaren 19ra arte

19:30 MUSIKESKOLAKo KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

22:15 ZINEA
 "Legítima defensa"

6 larunbata

10:30 GIPUZKOAKO ATLETISMO TXAPELKETA
 Alebinak
 Mintxetan

15:30 MUS TXAPELKETA HERRIKOIA
 La Unión Elkarte

19:30-22:15 ZINEA
 "Legítima defensa"

22:00 KONTZERTUA
 "Desterrados" eta
 "A falta de riesgo"
 Gaztetxean

7 igandea

16:30 ZINEA
 "Flubber"

19:30-22:15 ZINEA
 "Legítima defensa"

8 astelehena

22:15 ZINEA
 "Legítima defensa"

11 osteguna

20:00 EUROAri BURUZKO HITZALDIA
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Txankakua M. E.

12 ostirala

22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea:
 "Suspect Culture"
 Antzezlaria: "Airport"
 Herriko Antzokian

TRINITATE JAIAK

Larunbata, 6
11:00 Barrakak doan haur-errentzat Aita Agirre plazan.

16:00 XIV. Xake Txapelketa Leku-Eder parkean, Zubi-Ondo Elkarteak antolatuta.

17:00 Inazio Bereziartua Musikeskolako dantza ikasleen jaialdia Plaza Handian, Udal Txistulariekin eta Haritz Dantzari Taldearekin.

Herriko Dultzaineroen XXV. urteurrena ospatzeko, **Larrain dantza.**

23:00 Musika Bandarekin dantzaldia Plaza Handian.

Igandea, 7
9:00 Diana Udal Txistulari Taldearekin.

10:30 **III. Artiasu Azoka** Leku-Ederren.

11:00 Bapateko V. Xake txapelketa adin guztiarentzat Kultur Etxean, Zubi-Ondo Elkarteak antolatuta.

11:00 Meza Nagusia Parrokiako abesbatzarekin.


12:00 Plaza Handitik hasita, **Haurren Tanborrada** Musikeskolako Bandarekin, Udal Musika Fundazioak antolatuta.

17:00 Erraldoi eta Buruhandien kalejira dultzaineroekin.

18:00 Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailazoak Nafarroa Plazan.

19:30 Anje Duhalde eta Zigor Gazkez abeslarien kontzertua Plaza Handian.

ZINEA



Zuzendaria: Francis Ford Coppola.
Antzezleak: Matt Damon, Danny DeVito, Claire Danes.

Legítima defensa

Rudy-k zuzenbide ikasketak amaitu berri ditu eta bere ametsa bezero dirudunak lortzea da. Momentuz bi bezero baino ez ditu. Menfis hiriko abokatu batekin lan egiten duen espekulatuzaile batekin bat eginik, sistema osoa kolokan jarri duen kasua ikertzen hasiko dira. Izan ere, aseguru-erretxe batek jende behartsuari iruzur egiten dion susmoa dute. Arlo pertsonalean, berriz, senarrak jipoitzen duen emakume batekin harremanetan hasiko da.



Suspect Culture

Antzezlanak: Airport
Eguna: ekainak 12
Ordua: 22:30
Herriko Antzokian



Sarobe Arte Gunearen eskutik, 'Suspect Culture' izeneko antzez-taldearen azken lana ikusi ahal izango da datorren ostiralean, hilak 12, Herriko Antzokian. *Airport* da antzezlanaren izenburua eta hegazkin baten doazen turista, terrorista eta negozio-gizonen arteko gorabeherak kontatzen dira. Bidaiari batzuk iristen diren bezala, bes-

te batzuek alde egiten dute. Aireportu bateko 'duty free' delako dendan erosketa bat egiten du norbaitek. Bien bitartean, ekipaiaren zinta mugikorrean maleta bat dabil atzera eta aurrera. Ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz da antzezlanak.

● Organu-emaleei buruzko mahai informatiboak

Bihar, hilak 6, Organu Emailaren Nazioarteko Eguna dela-eta, mahai informatiboak jarriko dira Plaza Handian eta King Kong-en. Giltzurrun eta bihotz transplanteein informazioa eskuratu ahal izango da eta nahi duenak emaileri orriak bete ditzake.

● Euroa aztergai

Txankakua Elkartek Euroak denda txikiengan sortuko dituen eraginak aztertzeko hitzaldia antolatuko du. Datorren ostegunean, hilak 11, arratsaldeko 20:00etan izango da saioa Kultur Etxean. Informazio gehiago eskuratzeko 20 66 66ra deitu.

● Mus txapelketa

Bihar, hilak 6, La Unión Elkartearen mus txapelketa herrikoia jokatu da 15:30ean. Irabazleak txapela eta izen-ematearen %50a jasoko ditu. Bigarrenak trofeoa eta izen-ematearen %30a eta hirugarrenak, trofeoa eta %20a. Izena ematerakoan 1.000 pta. ordaindu behar dira.

● Arantzazura erromesaldia

Parrokiak antolatuta, Arantzazura erromesaldia izango da ekainaren 14an, igandea, Corpus Christi eguna. Irteera goizeko 9:45ean izango da Sigmako zubitik. Irteeraren zenbatekoa, bazkaria eta autobusa barne, 3.000 pta.koa da. Izena emateko *Murua* gozotegira edo Santa Ana kaleko *Garate* estankora zuzendu ekainaren 12a baino lehen.

T H A N O A H

FARMAZIAK


	Egunez	Gauzez
6	Bidasolo	Bidasolo
7	Bidasolo	Bidasolo
8	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
9	Anduaga	Anduaga
10	Yudego	Yudego
11	Zabaleta	Zabaleta
12	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

7 igandea Eizagirre



● Alfonso Tricioaren akuarela erakusketaren inaugurazioa

Gaur, hilak 5, Alfonso Tricio margolari gasteiztarraren akuarela erakusketa inauguratu da. Kultur Etxeko erakusgelan, arratsaldeko 19:00 izango da ekitaldia. Akuarela ikastaroa hilaren 19ra arte egongo da ikusgai.

publi irakasle eskola

Lana

◆ **ESKAINZA** ◆

- ◆ Tabernarako neska behar da as-
teburuetan lan egiteko. Euskaldu-
na. ☎ 12 73 34
- ◆ Taberna traspasatzen da Erroso-
rio kalean. Bezeroekin.
☎ 74 01 80
- ◆ Neska euskalduna behar da 2
ume zaintzeko.
☎ 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14
(bulego orduetan)

◆ **ESKAERA** ◆

- ◆ Barne Merkataritzan titulatuia es-
kaintzen da dendan lan egiteko Er-
mua, Eibar edo Elgoibarren.
☎ 74 10 09
- ◆ Emakumea eskaintzen da taber-
nan lan egiteko (esperientziarekin).
Beste lan batzuk ere egingo nituz-
ke. ☎ 74 15 74 (M. Carmen)
- ◆ Neska eskaintzen da pertsona
nagusiak eta umeak zaintzeko. Es-
perientzia daukat sukaldeko lanet-
an. ☎ 75 51 93
- ◆ 30 urteko neska euskaldunak
haurrak edo pertsona nagusiak
zainduko lituzke. Esperientziare-
kin. ☎ 75 91 93
- ◆ 44 urteko emakumea eskaintzen
da zaharrak zaindu edo/eta etxeko
lanak egiteko.
☎ 74 09 06/74 10 55
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da
haurrak zaindu eta etxeko lanak
egiteko. Egun osoa. Esperientzia
daukat. ☎ 19 21 28 (Axun)

Bestelakoak

- ◆ Rolling Stones taldearen kon-
zerturako autobusa ekainaren
18an, arratsaldeko 19:00etan atera-
ko da Sigmako zubitik. Izen ema-
tea **Kaia** kafetegian.
- ◆ Bollé markako eguzkitako be-
taurrekoak galdu nituen domekan
San Pedrotik Arraterako bidean.
☎ 74 30 33 (saritu egingo da)

Salerosketak

◆ **SALDU** ◆

- ◆ Opel Kadett autoa saltzen dut.
Egoera onean dago.
☎ 74 40 56 (Andoni)
- ◆ AEG labadora, hozkailua eta su-
kalde mistoa labe elektrikoarekin
saltzen ditut, portabonbonarekin.
Egoera onean. ☎ 74 10 44 (gaugez)
- ◆ Errepideko bizikleta salgai. Me-
rida, Shimano 105. Prezio interes-
garria. ☎ 74 07 85

Etxebizitzak

- ◆ Jakan (Membrilleras-en), aparta-
mentua salgai: bi gela, garajea eta
trasteroa. ☎ 74 20 31
- ◆ Benidorm-eko Levanteko hon-
dartzaren lehen ilaran etxea alo-
katzen da. Igerilekua, parking-a,
garbigailua eta telebista ditu.
☎ 74 20 31 (uztaileko 2. hamabos-
taldia eta abuztuko lehen hama-
bostaldia)
- ◆ Benidorm-en pisua hartuko nuke
alokeran abuztuan. Hondartzatik
gertu. ☎ 74 42 37 (19:00etatik aur-
rera)

Agurrak

- ◆ Zorionak **Imari** bihar, hilak 6,
urteak beteko dituelako. Bere se-
mearen partez.
- ◆ Zorionak **Estibaliz Morenori**
ekainaren 8an urteak beteko ditue-
lako. Ikas-ortzadar eta Ikas-beleak
taldeen partez, bereziki Sara Perez
eta Itsaso Alguacilen partez.
- ◆ Zorionak **osaba Eduri**, "Hue-
vi", hilaren 3an urteak bete zitue-
lako. Etxekoen partez, batez ere
Koldo eta Itziar iloben partez.
- ◆ Zorionak **Juantxo Fernandezi**
urteak bete dituelako eta aita izan
delako. Iloben partez.
- ◆ Zorionak **Ioritz Conderi** ekai-
naren 1ean urteak bete zituelako.
Osaba-izeben eta lehengusuen
partez. Aupa Real!
- ◆ Zorionak **Rociori** maiatzaren
28an 9 urte bete zituelako. Gura-
soen eta Sarai ahizparen partez.
- ◆ Zorionak **Ander Gabilondori**
ekainaren 7an 4 urte beteko ditue-
lako. Lehengusu Urtzi eta Andoni-
ren partez.
- ◆ Zorionak **Jose Mari Riañori**
ekainaren 2an urteak bete zituela-
ko. Iloba Iosu, Esther eta Maria-
ren partez.
- ◆ Zorionak **Mikel Ruizi** ekaina-
ren 6an 13 urte beteko dituelako.
Miren Bastidaren partez.
- ◆ Zenbat motibo gure **Remen** zo-
riontzeko! Baina jende aurrean ur-
tebetetzeari dagokiona jasota kon-
formatu beharko duzu. 29 urte...,
emakume izateko edadean eta
oraindik neskatila gaztea. Bizimo-
du onak eskaintzen dituen benta-
jak ete dira? Ea erregalu asko ja-
sotzen dituzun eta, badakizu, gu
beti prest egoten gara ahora zer-
bait eramateko. La Estrella eta
BARRENeKo lagunak.
- ◆ Zorionak **Jokin Vegas**i ekaina-
ren 3an urteak bete zituelako. Lau-
ra, Aurori eta Amaia ren partez.

Agurrak

- ◆ Zorionak **Andoni Riañori** ekai-
naren 3an urteak bete zituelako.
Iosu, Esther eta Mariaren partez.
- ◆ Zorionak **Maideri** larunbatean
maitemindu egin zelako. Leire eta
Mireiaren partez.
- ◆ Zorionak **Tamara Azkoitiari**
ekainaren 17an 10 urte beteko di-
tuelako. Kuadrilaren partez.
- ◆ Zorionak **Maideri** ekainaren
14an 10 urte beteko dituelako.
Kuadrilaren partez.
- ◆ Superzorionak **Lucia Segurari**
ekainaren 16an 10 urte beteko di-
tuelako. Solfeoko lagunaren partez.
- ◆ Zorionak **Amaia!** Honezkero
amak esan dizu ezkontzeko edade-
an zaudela, ezta? Je, je, je... Baina
ezkontza kontuak laga eta goazen
zelebratzera hilero-hilero gure
poltisikoetako amaraunak garbitzen
dituen lagunaren urtebetetze egu-
na. Urte askotarako! La Estrella
eta BARRENeKo lagunak.



tez.

- ◆ Zorionak **Ali-
cia Merinori** ur-
teak beteko di-
tuelako. Amaren
eta ahizparen
partez, igandean
egun alaia pasa

- ◆ Zorionak **Ne-
rea Lazkanori**
igandean 8 urte
beteko dituelako.
Familiaren eta
bereziki ahizpa
Maideren par-




dezala.

- ◆ Zorionak
Amaia Vegasi
ekainaren 11n 8
urte beteko di-
tuelako. Familia-
ren partez.




- ◆ Superzorionak
**Antonio Gallar-
dori** gaur, ekai-
nak 5, urteak be-
te dituelako. Gu-
raso, arreba, le-



- ◆ Zorionak hilaren 6an ezkontzen
diren **Miren** eta **Jorgeri**. Egun on
bat pasa eta zoriontsuak izan zai-
teztela. Estarta eta Arriola fami-
liak.



- ◆ Zorionak **Ju-
len Esnaolari**
bihar, hilak 6, 14
urte beteko di-
tuelako. Guraso,
aitona-amona eta
anaia Ikerren
partez.



hengusu eta osaba-izeben partez.

- ◆ Zorionak **Onintza** eta **Iker**
ekainaren 6an ospatuko dugun
zuen ezkontzagatik. Oso egun po-
litxa pasa dezazuela eta orain arte
bezala jarrai dezazuela opa dizue-
gu. Familia guz-
tiaren partez.



- ◆ Zorionak **Ion
Belaustegiri**
maiatzaren 28an
7 urte bete zitue-
lako. Familiaren
eta bereziki anaia

Ibonen partez.

- ◆ Zorionak
Jessica Garciari
hilaren 7an 16
urte beteko di-
tuelako. Familia
osoaren partez,
bereziki Jona-




than-en partez.

- ◆ Zorionak **Ion
Magrori** maia-
tzaren 28an urte
bat bete zuelako.
Familia osoaren
partez.



- ◆ Zorionak **Ro-
ciori** hilaren
28an 9 urte bete
zituelako. Gura-
soen eta Sarai
ahizparen partez.



- ◆ Super Zori-
onak **Rocio Ga-
llardori** hilaren
7an 9 urte beteko
dituelako. Gura-
so, anaia, osaba-
izeba eta lehen-
gusuen partez.
Egun ederra pasatu!



LYZAIDE

KAFETEGIA
JATETXEA

(Ospital parean)

Mendarozabal, z/g
Tel: 943 75 51 44-75 61

MENDARO

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak



● Uzt I n

Ik st r trnk k El rr n.

M I uzt k. Em n z zu z n (t l mu tu k)

Inf rm z

T l. 37

F x 37 1 5

E-m l ls t. s

**HIZKUNTZ
IK ST K
TZE I N
(17 urt tk
r k ntz t)**



IMI Er kun.z
S n k uz ,1- .K.37
2 7 ELG I (G uzk)



H z k u n t z S l u z k



GESTIO ESKOLA


Jakitez, Ekitez,... eta Izatez

IKASLE ETA GURASO INTERESATUENTZAT: ESKOLAREN AURKEZPEN SAIOA, ENPRESARI ETA IKASLEEN ESPERIENTZIEEN BITARTEZ

EKAINAREN 8an, ARRATSALDEKO 7etan
GESTIO ESKOLAKO ARETO NAGUSIAN

ETORKIZUNARI BEGIRA	• Zer?	• <i>Gestiogintza eta Enpresa Zuzendaritzarako goi mailako ikasketa berritzailea</i>
	• Nola?	• <i>Eskolaren bezeroen zerbitzura:</i> • <i>Ikasle, Zuzendari, Enpresari eta Gizarteari zuzendua</i> • <i>Beraien aholku, aportazio eta partaidetza bultzatuz</i>
	• Emaitzak	• <i><u>I. promozioiko ikaslego osoa (96-97 kurtsoa)</u> <u>lanean ari da</u></i>

berdintasunean



GESTIO ESKOLA
IMH - San Roke Auzoa,1
Tel: 943 74 41 32 / Faxa: 943 74 41 53
E-mail-a: susana@fmh.es



KALITATEAREN
SUSTAPENERAKO
EUSKAL
IRASKUNDEA

rekin lankidetzan dihardu